

# zer da Baietz 23 egun euskeraz ?

Herri-erronka da, euskeraz ulertzen edo berba egiten daberen Igorretar guztiei zuzendua. Batzuei, hizkuntzaren armariotik urtetea proposatzen jatsue, eta besteai, armariotik urten direnak animatutea eta lagundutea. **Azaroaren 10ean** hasi eta **Euskeraren egunean** (abenduaren 3an) bukatuko da.

## Zer da hizkuntzaren armairutik ateratzea ?

Gure gaztelaniazko hizkuntza ohituretatik urten eta hizkuntza portaerea euskerara ekartea da. Horretarako, **3 figura** dira beharrezkoak:

### AHOBIZI

Euskerazko jokaera aktiboa hartuz, armariotik urtengo diren herritarrak dira. Astebetez, euskeraz egingo deusie ulertzen dauanari.

### BELARRIPREST

Dakienari euskeraz berba egiteko gonbitea egingo deusie, nahiz eta eurek erderaz erantzun.

### BARREBIZI

Euskeraz jakin ez arren eta ulertu ez arren, euskerarekiko jarrera positiboa erakusten dabe. Pozik dagoz inguruan euskeraz entzuten dabenean.


## 3 aste, 23 egun

Erronkak iraungo dauzan 23 egunak 3 astetan banatuko doguz. Belarriprestek eta barrebiziek 3 asteetan eutsingo deusie erronkari. Ahobiziek, gitxienez, astebeterako emongo dabe berbea. **ZENBET ETA AHOBIZI GEHIAGO ABENDUAREN 3RAKO HOBETO!**

## Erronkan parte hartzeko baldintzak

- Igorren jaio, bizi edo lan egitea.
- 16 urtetik gorakoa izatea.
- Izena emotea Kultur Etxeko sarreran prest egongo diran kutxetan urriaren 2tik aurrera.

# URTEN ARMARIOTIK! Baietz 23 egun euskeraz





## BELARRIPREST izan gura doti

Belarriprest izateko, **euskeraz ulertu** behar dozu ezinbestean.

### Belarriprest izanda:

- Zure jarrera positiboa erakusten dozu: "bai, ondo hartzen dot niri euskeraz egitea"
- **Gonbitea** egiten deutzazu euskeraz dakienari zuri euskeraz egiteko: Euskeraz ulertzen dot. Egidazu lasai euskeraz!"
- **Lagundu** egiten deutzazu euskeraz egin gura dauanari armariotik urtetan.

### Belarriprest izateko:

- Izena emon behar dozu Kultur Etxeko sarreran prest egongo diran kutxetan urriaren 2tik aurrera.
- Txapa bat emongo deutzazu, **Belarriprest** zarela adierazten dauena. Txapa hori aldean eroan beharko dozu **azaroaren 10etik abenduaren 3ra**, erronkak irauten dauan bitartean, hain zuzen be.


Izen-abizenak: \_\_\_\_\_

Jaioturtea: \_\_\_\_\_

E-maila: \_\_\_\_\_

Mobila: \_\_\_\_\_

Sinadura: \_\_\_\_\_



## BARREBIZI izan gura doti

Barrebizi, euskerari irribarre. Barrebizi izan gura badozu, euskerarekiko jarrera positiboa eduki behar dozu.

Ez da beharrezkoa euskeraz ulertu edo berba egitea.

### Zer esan gura dau horrek?

- Euskeraz berba egiten entzuten dozunean, zuk irribarre egingo dozu, eta txapa ipinita eroango dozu zure babesa erakusteko.

### Barrebizi izateko:

- Izena emon behar dozu Kultur Etxeko sarreran prest egongo diran kutxetan urriaren 2tik aurrera.
- Txapa bat emongo deutzazu, Barrebizi zarela adierazten dauana. Txapa hori aldean eroan beharko dozu **azaroaren 10etik abenduaren 3ra**, erronkak irauten dauan bitartean, hain zuzen be.


Izen-abizenak: \_\_\_\_\_

Jaioturtea: \_\_\_\_\_

E-maila: \_\_\_\_\_

Mobila: \_\_\_\_\_

Sinadura: \_\_\_\_\_



## AHOBIZI izan gura doti

Ahobizi, **euskeraz bizi**. Ahobizi izan gura badozu, **euskeraz bizitzeko** erronkari eutsingo deutzazu.

### Zer esan gura dau horrek?

- Inguruko (etxeko, lagunarteko, beharlekuko...) ezagunekaz euskeraz egingo dozu, besteak euskeraz ulertzen badau. Ezagun horreekaz **beti** egingo dozu euskeraz nahiz eta eurek zuri erderaz erantzun, gitxienez astebetetz eta hortik aurrera kanpainak irauten dauan epean, gure beste egun.
- **Ezezagunekaz berba egiterakoan, zuk lehenengo berbea euskeraz egingo dozu**, eta ulertuten badeutsue, euskeraz jarraituko dozu. Bardin da eurek zuri erderaz erantzutea.

### Ahobizi izateko:

- Izena emon behar dozu Kultur Etxeko sarreran prest egongo diran kutxetan urriaren 2tik aurrera.
- Txapa bat emongo deutzazu, **Ahobizi** zarela adierazten dauena. Txapa hori aldean eroan beharko dozu **konpromisoa hartu dozun egunetan**.

Izen-abizenak: \_\_\_\_\_

Jaioturtea: \_\_\_\_\_

E-maila: \_\_\_\_\_

Mobila: \_\_\_\_\_

Sinadura: \_\_\_\_\_

